

4/2020 INSTRUKZIOA, OSAKIDETZAKO ZUZENDARI NAGUSIARENA, 5/2019 INSTRUKZIOAREN INDARRALDIA LUZATZEN DUENA, LEHEN MAILAKO ARRETAN AUTOITUNTZEAREN EDO BEREZKO BALIABIDEEN BIDEZ KUDEAKETA HOBETZEKO PROGRAMETAN INTEGRATUTAKO OSAKIDETZAKO UNITATE ASISTENTZIALETAN ZERBITZUAK EMATEN DITUZTEN LANGILEEI PRODUKTIBITATE-OSAGARRIA APLIKATZEKO IRIZPIDEEI BURUZKOA

Osakidetza Zuzendaritza Nagusiaren 10/2019 Instrukzioaren bidez, Osakidetza Zuzendaritza Nagusiaren 5/2019 Instrukzioaren indarraldia luzatu zen 2020ko otsailaren 29ra arte, aipatutako 5/2019 Instrukzioan ezarritako neurrien ezarpenaren ebaluazio osatuagoa egiteko asmoz.

Bere horretan jarraitzen dute Lehen Mailako Arretan autoituntzearen edo berezko baliabideen bidez kudeaketa hobetzeko programa ezartzea eragin zuten inguruabarrek, eta, orain arte lortutako emaitzak ikusita, agerikoa da Lehen Mailako Arretaren eskari asistentzialari erantzun egokia eman zaiola. Beraz, egokitzat jotzen da 5/2019 Instrukzioan jasotako neurrien aplikazioari eustea 2020an zehar.}

2020an, 5/2019 Instrukzioaren garapenaren eta aplikazioaren jarraipena egingo da Osakidetza zerbitzu-erakundeetan, zehazteko Instrukzioa berriz luzatu behar den beste Instrukzio baten bidez.

Azaldutakoaren ondorioz, eta Osakidetza Zuzendaritza Nagusiari dagozkion eskumenez baliatuz, honako instrukzio hau eman da Osakidetza Ente Publikoaren Estatutuak onartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 11 b) artikuluari jarraikiz eta 1992ko uztailaren 21eko Aginduaren 2. artikuluan eta azken xedapenetako lehenean ezarritakoa betez:<0}

INSTRUKZIOA:

Lehenengoa.– 2020ko abenduaren 31ra arte luzatuko da Osakidetza zuzendari nagusiaren 5/2019 Instrukzioaren indarraldia, Lehen Mailako Arretan autoituntzearen edo berezko baliabideen bidez kudeaketa hobetzeko programetan integratutako Osakidetza unitate asistentzialetan zerbitzuak ematen dituzten langileei produktibitate-osagarria aplikatzeko irizpideei buruzkoa.

Bigarrenagoa.– Instrukzio hau Osakidetza webgune korporatiboan eta intranetean argitaratuko da, eta 2020ko martxoaren 1ean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko otsailaren 25a.


ZUZENDARI NAGUSIA
Iz. D. JUAN LUIS DIEGO CASALS
OSAKIDETZAKO ZUZENDARI NAGUSIA
EUSKAL OSASUN ZERBITZUA